

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren Zuzendaritza-Batzordea

Bilera-akta

Eguna: 2016-11-21

Hasiera-ordua: 13:00

Bukaera-ordua: 14:30

Bertaratuak

Patxi Baztarrika Galparsoro jn., Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Joseba Lozano Santos jn., Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria

Joseba Erkizia Itoitz jn., HABEren zuzendari nagusia

Eneko Oregi Goñi jn., HAEE-IVAPEko Euskara zuzendariordea

Lorea Bilbao Ibarra and., Bizkaiko Euskara eta Kultura Departamentuko foru diputatua

Mikel Irizar Intxausti jn., Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia

Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiaren ordezkaria

Lurdes Isart Badiola and., HABEko Didaktika zerbitzuko ordezkaria

Joseba Urriz Goikoetxea jn., Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak

Cristina Uriarte Toledo and., Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua, eta Zuzendaritza-batzordearen presidentea.

Jokin Azkue Arrastoa jn., Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria

Igone Martínez de Luna Unanue and., Arabako Euskara, Kultura eta Kirol Departamentuko foru diputatua.

Ibone Bengoetxea, Eudelen ordezkaria

Aztergaiak:

1.- Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkeztea

2.- 2015/01/30eko bileraren akta onartzea

3.- HEOCaren araberako gaitasun-mailen egiaztapenari buruzko Agindu-proposamen berria aurkeztea eta onartzea

4.- Galde-erreguak

Bertaraturakoei eskerrak eman ondoren etortzeagatik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde eta Zuzendaritza Batzordearen presidenteorde den Patxi Baztarrikak hasiera ematen dio bilerari, adieraziz berak presidituko duela gaur Zuzendaritza Batzordearen bilera sailburuak ezin izan duelako etorri Bruselan dagoelako bilera batean.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1.- Zuzendaritza Batzordeko kide berriak aurkeztea

HABEren zuzendari nagusiak aurkezten ditu Batzordearen kide berriak, bakoitzak ordeztzen duen erakundea adieraziz. Hala:

-Lorea Bilbao Ibarra anderea, Bizkaiko Euskara eta Kultura Departamentuko foru diputatua.

-Mikel Irizar Intxausti jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Bedintasuneko zuzendari nagusia.

-Lourdes Isart Badiola anderea, HABEko Hizkuntzaren Didaktika zerbitzuko ordezkaria.

-Joseba Urriz Goikoetxea jauna, Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria.

-Arantxa Ezeiza Trojaola anderea, Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkari berrizendatua izan dena.

2.- 2015/01/30eko bileraren akta onartzea

Gipuzkoako udal euskaltegien ordezkari den Arantza Ezeizak adierazten du ez duela jasota ikusi aktan HEOC berriaren ondorioz udal euskaltegiek ere burutu behar dituzten lanentzako diru aurreikuspenari buruz egin zuten aipamena, eta jasotzea eskatzen du.

Lourdes Isartek, bere aldetik, proposatzen ditu markatuta entregatzen dituen zuzenketa batzuk, eta eskatzen du, baita ere, Brasilen irekitako Euskal Etxearen inguruan aurreko bileran egin zen aipamena ere jasotzea. Aldi berean, adierazten du gehiegi atzeratu dela aurreko bileraren aktaren ekarpena eta eskatzen du hurrengoetan azkarrago helaraztea bileren aktak.

Aipatutako zuzenketak eginda, onartuta gelditu da akta.

3.- HEOCaren araberako gaitasun-mailen egiaztapenari buruzko Agindu-proposamen berria aurkeztea eta onartzea

Ondoren Joseba Erkiziak aurkezten du HEOCaren araberako gaitasun-mailen egiaztapenari buruzko Agindu-proposamen berria. Azaltzen du azken hilabeteotan prestatutako proposamen honek bi helburu dituela:

- Euskaltegietako eta autoikaskuntzako zentroetako ikasleek eskuratutako gaitasun mailak egiaztatzeako sistema euskaltegietara eramatea, HABEren gidaritza eta kontrolpean.

- HABEk herritarrei, oro har, zabalik egongo diren azterketa deialdi irekiak egitea.

Lehenengo helburuari dagokionez –euskaltegien ahalmen akademiko osoa aitortzea-proposamenak HABE sortzeko Legeak ezarritakoa betetzen duela dio; izan ere, HABE sortzeko 29/1983 Legeak xedatzen du bai euskalergi publikoek bai pribatu homologatuek ahalmen akademikoa osoa izango dutela (13. eta 16. artikulua).

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Bigarren helburuari dagokionez, berriz, -HABEk herritar guztiei zabalduz egongo diren egiaztatze-azterketetarako deialdi irekiak egitea-, adierazten du HABE bera sortzeko xedea bete-betean osatzera datorrela egitasmo berria, hain zuzen ere, Legearen 1. artikulua xedatutakoari jarraikiz: "Helduen Alfabetatze-Berreuskalduntzerako Erakundea sortarazten da ... bere helburuak betetzeko gaitasun osoz ihardungo duen Herri-alorreko Legepeko erakunde". Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onartutako Euskararen Agenda Estrategikoa 2014-2016 dokumentuan berriaz azaltzen den helburua betetzen du aurkeztutako egitasmoak: "EGE 22.5.- Helduen euskalduntzea oinarri hartuz eta HABEren gidaritzapean, egiaztatze deialdi irekia egitea"). 2015ean B1 eta B2 agiriak eskuratzeko deialdi irekiak egin ondoren, Egiaztatze Aginduekin HEOCaren maila guztiak egiaztatze bidea jorratzen dela erabiten du.

Era berean, adierazten du euskararen gaitasuna euskaltegietan egiaztatze prozesua ebaluazio jarraituaren sisteman oinarrituta egitea bat datorrela Euskara Agirien Baliokidetzaren Jarraipen Batzordeak 2016ko martxoaren 18an onartu eta Legebiltzarrean aurkeztu zen txosteneko atal batekin: "ebaluazio jarraitua aintzat hartzea gaitasuna egiaztatze sistemetan, hautagaiak euskara ikasteko prozesutik datozenean"; hau da, halakoetan, egiaztatze-sistema ikasprozesuan txertatzea eta ikasprozesuarekin estuago lotzea. Azpimarratzen du, nolahi ere, ebaluazio jarraituan oinarritutako egiaztapenerako ebaluazio-irizpideak HEOCean jasotako berberak direla: gaitasuna lau trebetasunetan neurtzeko jarduerak izango dira, trebetasun bakoitzean definitutako bost parametro neurtuz eta hiruko balorazio-eskala erabiliz, tartekoa izanik gaitasun gutxienekoa.

Bestalde, azaltzen du elkarrekin egindako bestelako hainbat lana formal eta informalez gainera, Egiaztapen Agindua modu monografikoaz aztertzeko hiru lana edo bilera egin dituela HABEk euskaltegiekin: urriaren 5ean, urriaren 20an eta azaroaren 11n.

Bilera horietan guztietan euskaltegi sare guztietako ordezkariak parte hartu dute:

- Bizkaiko eta Arabako Udal Euskaltegiak
- Gipuzkoako Udal Euskaltegiak
- BATUZ sareak
- AEK sareak
- ELKARLAN sareak
- IKA sareak
- Barnetegien sareak

Zehazten du sare guztietako ordezkariak bat etorri direla Egiaztapen Aginduaren helburuekin, eta bereziki azpimarratu dutela euskaltegiei ahalmen akademikoa aitortzea errebindikazio historikoa izan dela eta prest daudela eginkizun eta erantzukizun hori hartzeko. Horregatik, HABErekin aho batez hitzartu dute egiaztagiri guztiak (A1etik C2raino) ebaluazio jarraituan oinarritutako ebaluazio-jardueren bitartez gauzatzeko prozesua gehienez ere 4 urteko epean burutzea. Nolanahi ere, agertzen du euskaltegiak adierazi dutela prozesu honek dakarren lan-karga eta erantzukizunerako baliabide gehiago behar dituztela.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Deialdi irekiei dagokienez, euskaltegiek gainerako deialdiekiko bikoizketak ezabatzea joan beharko litzatekeela planteatu dutela dio Joseba Erkiziak, baina prest agertu direla, baita ere, prozesu horretan HABErekin bat eginda jokatzeko, erakunde honen deialdiok behar bezala aurrera ateratzeko. Horretarako guztirako, irizpideak bateratze-saioak egiten jarraitzea eta sendotzea adostu dute HABErekin.

Bukatzeko, herritarrei eskainiko zaien zerbitzuaren hobekuntzaz gain, HABEren zuzendari nagusiak azpimarratzen du Agindu honen bitartez HABESEA Legean aurreikusitako azkeneko pausoa gauzatzen dela, 25 urte igaro ondoren, eta eskertu egiten du euskaltegiek izan duten HABErekiko lan-jarrera.

Zuzendaritza Batzordearen presidenteorde den Patxi Baztarrikak hitza hartzen du prozesu honetan partaide izan direnei eskerrak emateko proiektuaren inguruan gauzatu den adostasunarengatik; izan ere, eraginkortasunaren aldetik, adostasun hori oso inportantea dela adierazten du.

Ondoren, Andres Iñigok galdetzen du HEOCean zedarritutako sei mailak egiaztatu ahal izango diren hurrengo deialdi irekian, C2 gaitasun-maila barne; edo datozen lau urteetan erabaki behar den C2 gaitasun-maila ere deialdi irekien bitartez egiaztatzea. Joseba Erkiziak erantzuten dio aurkezten den Agindu-egitasmoan HABEren zuzendari nagusiari ematen zaizkion eskumenen arabera, HABEren zuzendari nagusiari aitortzen zaiola ahalmena, urtez urte, erabaki hori hartzeko; hori dela eta, eransten du datorren urteko deialdi irekirako aurreikuspena dela (bakarra izango bailitzateke) B1, B2, C1 eta C2 gaitasun-mailak egiaztatu ahal izatea. Ohiko deialdiei dagokienez, berriz, bi deialdi izaten jarraituko dutela adierazten du, 2017. urtearen kasuan B2, C1 eta C2 gaitasun-mailak egiaztatzeko, A1, A2 eta B1 gaitasun-mailak ebaluazio jarraituaren barruan gauzatuak berariazko ebaluazio-jardueren bitartez egiaztatzea aurreikusten baita.

Iñigo jaunak idazmena mintzamenarekin konpentsatzeko aurreikusten den aukerari buruz egindako galderari erantzunez, Joseba Erkiziak esplikatzen du Agindu-egitasmoan aurreikusten den konpentsazio-sistema Euskara Egiaztagirien Baliokidetzaren Jarraipen Batzordeak (Jaurlaritzako organo egiaztatzaile guztiak biltzen dituen) onartu duen irizpidea dela eta datorren ikasturtean HABEren azterketa-deialdietan aplikatu ahal izateko jasotzen duela prebisio hori agindu-proiektuak. Horren gainean, Andres Iñigok galdetzen du aurreikusten den konpentsazioaren funtzionamendu-sistema, alegia, konpentsazioa trebetasun guztien artean aplikatuko den ala ez, eta zein norabidetan. Baita ere, galdetzen du nola aplikatuko den konpentsazioa ez badira lau trebetasunetako probak egiten, edo baita ere deialdi irekietan. HABEren zuzendariak azaltzen dio mintzamenari -idazmenaren aldean- garrantzi gehiago ematea dela asmoa, eta trebetasun guztien artean, trebetasun ekoizleei trebetasun hartzaileei baino indar gehiago. Hala ere, jakin arren konpentsazioa trebetasun eta norabide gehiagotan aplika daitekeela, datorren ikasturteko azterketa-deialdietan idazmena mintzamenaz konpentsatzea da HABE aurreikusten ari dena.

Lourdes Isartek azpimarratzen du euskaltegiek beren fokua azpimailen definizioan jarri dutela, baina azpimailetatik mailetara bitarteko ekoizpenak ere garrantzia duela. Erantzuten dio Josebak HEOCean definitutako mailekin batera, berariazko ebazpen baten azpimailak ere onartu dituela HABEk, eta horrek errazten duela HEOCaren ebaluazio-irizpide horiek ikas-prozesura eramatea; azken batean, xedea da ebaluazioa -didaktikoa eta egiaztatzailea- ikas-prozesuari erabat atxikitzea; eta, horrekin batera, ikasprozesuaren indarrak trebetasun sortzaileetan jartzea -batik bat mintzamenan-,

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ikasprozesuen azterketetan sistematikoki ikusten baita euskara-ikasleek trebetasun hartzaileak lehenago eta errazago eskuratzen dituztela trebetasun ekoizleak baino.

Eneko Oregik, bere aldetik, proiektua interesgarria dela adierazi ondoren, planteatzen du komenigarria izan zitekeela proiektua Euskara Egiatagiriaren Baliokidetzaren Jarraipen Batzordeari ere ezagutzera ematea bere osotasunean onartu aurretik, batzorde horren proposamenak jaso ondoren arau-proposamena ikus dezan; eta eransten du, berak dakienez, Agindu-egitasmoa ez dela batzorde horretara bidali.

Erantzuten dio Patxi Baztarrikak esanez herritarrei ematen zaien zerbitzua egitasmoan jasotzen den sistemarekin modu nabarmenean hobetzen dela, eta azpimarratzen du Euskara Egiatagiriaren Baliokidetzaren Jarraipen Batzorde horren presidentea bera den aldetik, esan dezakeela batzorde horrek ez duela orain arte inoren egiaztatze-deialdirik jaso bere azterketarako, ezta IVAPen deialdirik ere ez, hau da, hain zuzen ere, Eneko Oregik berak ordezkatzeko duen erakundearen deialdirik. Eta eransten du batzorde horretan parte hartzen duten erakunde guztiek (IVAP, Osakidetza, Ertzaintza, HABE, Hezkuntza Sailburuordetza ...) beren irizpideak eta prozesuak erabakitzen dituztela, Jarraipen-Batzordearen zeregina egiaztatze-prozesuak burutzeko irizpideak bateratzea eta prozesuak gertutik jarraitzea izanik. Beraz, bukatzen du esanez, gaur aurkeztu den egitasmoa HABEren proiektua den heinean, HABEren Zuzendaritza-Batzordeari dagokiola onespina ematea sailburuak onartu aurretik. Azpimarratzen du, gainera, Aginduak jasotzen dituen bi xede nagusiak – ikasprozesua dagoen kasuetan egiaztapena ebaluazio jarraituarekin gauzatzea eta HABE deialdi irekiak egitea- Jarraipen Batzordean aho batez onartuak direla.

Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria den Lorea Bilbao Ibarrek aditzera ematen du bazela garaia pausu hori emateko eta, egin den lanaren inguruan esan daitezkeen hainbat gauzaren artean, berak lan horren oinarrian gauzatu den lankidetzaz azpimarratuko lukeela; uste du taxuz landu den egitasmo honen inguruan komunikazio eraginkorra egitea komeni dela, urrats sendoa eman delako herritarrek eta profesionalak oso sarri eskatutakoari erantzuteko. Gaineratzen du gaur hemen aipatu diren hainbat gauza ondorengoei dagokiela gauzatzea, baina, bere ustez, gaur beharrezkoa dela aintzakotzat hartzea euskaltegiek eta ikasleek egin duten eta egiten jarraitzen duten lana, eta bukatzen du adieraziz proiektuarekin hartutako bideak HABE eta euskaltegiak enpoderatu egiten dituela bere ibilbidean eta herritarrei abantailak sortu.

Joseba Urrizek, bere aldetik, poza adierazten du Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegien izenean, hauek orain arte egindako lanaren aitortzea dakarrelako egitasmoak, hain zuzen ere, bide horretan batzuetan sufritzea tokatu izan bada ere, aurrera jarraitu dutelako kanpoan ez gelditzeko eta abiatutako bidea jorratzeko. Era berean, azaltzen du oraindik ere gauza batzuk gelditzen direla proiektua bere osotasunean heltzeko: alde batetik, datozen urteetan HABEren zuzendariak erabaki beharko duelako, urtez urte, egiaztatze-prozeduraren aplikazioa; eta bestetik, berriz, euskaltegiek ere egitasmo berriak dakarkien erronkari erantzun beharko diotelako, ez baita makala ebaluazio jarraituak berekin dakarren egitekoa. Hala ere, C2 maila egiaztatzeko modua birplanteatzeko momentua agian heldu dela gaineratzen du, eta euskaltegien finantziarioaren kezka adierazi ondoren, azpimarratzen du prest daudela erronkari heltzeko, bazela garaia berretsiz.

Arantza Ezeizak, Gipuzkoako euskaltegien izenean, baieztatzen du gaur batzorde honetara ekarritako egitasmoak lana ekarriko diela euskaltegiei eta udal euskaltegien

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

kasuan bateratze-lan sendoa egitera bultzatzen dituela, baina bileran entzuten denak poztu egiten duela. Nolanahi ere, azpimarratzen du egitasmoarekin emango den urrats importante honek babestu egiten duela orain arte egindako lana.

Batzordekideen irizpenak entzun ondoren, Patxi Baztarrikak adierazi nahi du idatziz jasota gera dadin, kontziente dela euskaltegientzat proiektu berria erronka dela, baina kontziente dela, baita ere, irabazteko erronka dela.

Euskaltegien ordezkari biek berretsi egiten dute Hizkuntza Politikako sailburuordeak egindako adierazpena, eta eskatzen dute pazientzia bere jarduerarekiko hobekuntza lan handi hori egin bitartean, batez ere bateratze-bide horretan.

Batzordekide guztien onespenearekin, sailburuari egitasmoaren onarpena proposatzea erabakitzen da, eta proiektuan parte hartu dutenak zorientzea eta txalotzea. Aho batez onartua geratzen da egitasmoa

Bilera amaitu aurretik Lourdes Isartek galdetzen du ea eskuratzerik dagoen 2014ko aurrekontuaren likidazioa, 2015ean egin zen bileran ezin izan zelako aurkeztu dokumentu hori, likidazioa burutu gabe zegoelako bilera egin zen garaian, 2015eko urtarrilean. Gai horren inguruan erantzuten dio Joseba Erkiziak eskatutako informazio guztia hileroko banatzen zaiela HABEren bi zerbitzuetako buruei eta atal-buruei; beraz eskuragarri daukala edozein momentutan orain eskatu duena.

Eskaera horren aurrean Lorea Bilbao Ibarrak eskatzen du batzordekideek ez dezatela Zuzendaritza-Batzordearen bitartez eskatu eskura dituzten gauzak, ez baita bidezkoa ordezkartuta dauden erakunde bakoitzaren barruko komunikazio-prozesuak mahai honetatik bideratzea.

Besterik gabe, amaitzen da bilera ordubata eta laurden direlarik.